

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

Ibarreko lagunek omenaldia Xantiri /8

LABURREAN

Gazte Asanbladak webgunea sarean /9

LEINTZ GATZAGA

Ludotekak itxita jarraitzen du /10

Gero eta denda gutxiago herrian

Laster, Loramendi aldeko hiru denda itxiko dituzte

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 25
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99
DOMEKA, 26
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 85 83

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK
Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzaillea 943 71 18 62
Hezibide elkarteak 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Institutua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxiko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Saretxo 943 71 26 56
Taxi geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udalzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAIINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK
SOS Delak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Ofiati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00/12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00/10:00
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN:

ARIENTZAN
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 11:30 (Otoitzaldia bakarrik)

OHARRAK

ARETXABALETAKO EPEH PLATAFORMAREN MANIFESTAZIOA

Urtarrilaren 31n (egubakoitza), *Barandalla etxera!* 92. artikulua orain lelopean kale agerraldia egingo dute, Durana kalean, 19:00etan. Manifestazioa Aretxabale-tako EPEH plataformak antolatu du.

1977AN JAIOTAKOEN KINTO BAZKARIA

Otsailaren 22an, 1977an jaiotako kintoek bazkaria egingo dute. Izena emateko epea otsailaren 9an amaitu-ko da. Izenematea, Urbal-tzen, 10 euroren truke.

BASOTXOKO ERRETIRATUEK, BENIDORMERA BIDAIA JOATEKO AUKERA

Basotxoko erretiratuek apirilaren 27tik maiatzaren 11ra bitartean Bendidorme-ra bidaiara egingo dute. Interesatuok, eman izena lehenbailehen Basotxoko bulegoan. 396 euro ordain-du beharko ditu bakoitzak.

ZURE OHAR ETA DEIALDIAK ARETXAGAZETA-N

Zure bizilagunei, lanki-deei edo aretxabaleta-rrei, orokorrean, ohar bat jakinarazi gura-badiezu, hemen duzu zure tarte egokia. Deitu edo bidali zure oharrak: Tel.: 943 79 86 21
aretxagazeta@goiena.co

LORAMENDIRENAGENDA

DEBAGUNEREN EGUTEGIAK

Erretratu zaharrekin egindako Debaguneren egutegi berriak salgai dituzte Loramendi Euska-ra Elkarteko egoitzan. Gura baduzue, pasatu elkarteko egoitzatik, 16:00etatik 20:00etara bitartean. Egutegiak 2,5 euro balio du.

ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN

'Aretxabaletakoa Bainu-Etxeak' liburua aurkeztu zuten

1994ko urtarrilaren 24an, *Aretxabaletakoa Bainu-Etxeak* izeneko historia-liburua aurkeztu zuten herriko udaletxean. Aurkezpen ekitaldian orduko alka-te Aitor Antxia eta Aretxabale-tako bainuetzeko azken jabe Fer-nando Arieta González-Tabla egon ziren, besteak beste.

ARETXABALETAKO BAINU-ETXEAK



Jose M^o Urkia

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Egaratu"

- Hegan hasi.
— Anka ondotik egaratu jatan oillagorra ta ezin izan notsan tiratu.
- Txoriak habitik hegan hasi.
— Txori-apixia nekixen zazpi txorikumakin baiña akordau orduko egaratu zien.



ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Miren Antxia
8an, 4 urte. Zorionak eta musu handi bat, etxeko-en partetik.



ARETXABALETA
Amagoia Jiménez
14an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Almen-go lagunen partetik.



ESKORIAITZA
Juan Olalde
14an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Almen-go lagunen partetik.



ARETXABALETA
Jaione Mendikute
16an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Almen-go lagunen partetik.



ARETXABALETA
Cesar González
30ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Mikel Zumalde
27an, 4 urte. Zorionak, anaia Gorkaren, gurasoen eta familiako en partetik.



ARETXABALETA
Nagore Balanzategi
30ean, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, familia-ko guztien partetik.

MARIA JESUS ARGAZKIGINTZA ESTUDIOA

Modazko Book-ak

Ezteiak Jaunartzeak Publizitateko Argazkiak

Zaharberritzeak, Errebelatuak, Argazki Digitala, eta Karnererako Argazkiak.

ARABA IBILBIDEA 27 1- D 943 771255 - 656 732463

ARETXABALETA (GIPUZKOA) shibat@wanadoo.es

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Inork ikusi al ditu guraizeak?'

Prakestu justu-naren guraize-ak egun batez hegan atera ziren leihotik; guraizeek eba-ki nahi zuten airea, euria, hodeiak... Oihala ez den edozer. Moztu zuten papera, moztu zituzten loreak, anima-liak lotzen zituz-ten sokak... Eta, a z k e n e a n, berriz bueltatu ziren etxera; bai-na azken bihurrikeria bat egin nahi izan zuten.



Inork ikusi al ditu guraizeak? Fernando Krahn

INORK IKUSI AL DITU GURAIZEAK?

Fernando Krahn
Kalandra argitale-txea
48 orrialde

Quino-ren lanak ekarri dizkit gogora Krahnnek ilustrazio bikain hauekin, baina hauek kolore edere-z osatuak daude. Irudiak ikusi-ta bakarrik jarraitzeko moduko istorioa da; komikietan bezala, irribarrea eta konplizitatea bilatzen ditu. Album ederra da txi-kienei kontatzeko.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Lubia
oinetakoak

beherapenak!

Mitarte 14 • 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53 ARRASATE

Jou Diaz

Harakina


Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

O R L A




Herriko plaza z/g ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Loramendi aldien hiru denda itxiko dittue laster. Horren gaiñien esatekorik?



AMPARO AMPUDIA
Jubilaue



TOMÁS FERNÁNDEZ
Langillie



ARANTXA AMOZARRAIN
Jubilaue



GESAREO FERNÁNDEZ
Jubilaue



LAURA ALDALUR
Langillie



ALEJANDRO PÉREZ
Jubilaue

Txarto pentsetan jat, hamendik aurrera kanpora fan biherko garelako. Euren arrazoiek entendi-duten dittut, baiñe hamen be jente asko bizi gare, eta auzuek bizitza galduko dau.

Denda txikiek merkataritza etxe haundixen erruz ixten dauela uste dot. Erosliok preziuei asko begireketan dutzegu, eta horren aurrien gauza gutxi egin leikie denda txikiek.

Loramendi aldie oso triste geratu biher dala pentsetan jat. Ez dakit negoziuek bizi izeteko lain emuten dutzien edo ez, baiñe hamenguok igarriko dogu faltie. Eskerak Eroski etorri dana...

Komertziuek kompetentzia haundixe daukiela entendi-duten dot, denda haundixekin, batez be. Hala be, ez dot uste auzuek bizitza galduko dauenik, bestela be ez dauko-eta haundirik.

Aretxabaletan negoziuek ez daukie urtenbide haundirik. Auzuek ez dot uste bizitarik galduko dauenik, baiñe parafarmaziaren faltie igerriko dogu, farmaziarik be ez daukogu-eta.

Ez jat ondo pentsetan, auzuek bizitza galduko dauelako. Bizi izeteko oso auzo politte da, aparketako be ez dago problemarik, baiñe zerbitzuek falta jaku; banku bat, esate baterako.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK LIBURUTEGIKO ISKANBILARI Ahalegindu zarete sekula Aretxabaletako liburutegian zerbait ikasten? Ezinezkoa da. Umeak oihuka, jendea gora eta behera, eta guraso batzuk taberna baten egongo balira bezala berba egiten, lasai-lasai. Liburutegiko arduradunak ez dauka zertan horri aurre egin; haren eginbeharrekoa liburutegia bera zaintzea da, eta ez hara joaten direnak. /A.L.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Gero eta denda gutxiago

Datozen hilabeteetan hiru denda itxiko dittuzte herrian. Hirurak gainera, Loramendi aldean daude.

ASTEAN BEHIN /05

Literatura Lehiaketa

Atzo, eguna, banatu zituzten XIV. Loramendi Literatura Lehiaketako sariak.

KIROLAK /06

Igor Arenazari elkarrizketa

Igor Arenazak, Granadako Motril taldea utzi eta gero, Barakaldoko futbol taldean jokatuko du.

ASTEKODATUA

3

DENDA ITXIKO DITUZTE LASTER HERRIAN


Hainbat arrazoi tartean, Aretxabaletan denda bat itxi dute eta hilabete batzuk barru beste hiruk erabaki bera hartuko dute. Azken hiru denda horiek Loramendi aldean daude.

BESTEKEESANA

“Gaur, ordea, itsasoa negarrez dago. Prestige. Petroliontzia zahar hura dagoeneko oso nekatuta zegoen bere bidaiara jarraitzeko; inork ez zion egotzi, eta itsasoratu egin zen. Eta Costa da Morten hil zen Prestige petroliontzia, eta harekin batera itsasoa ere hil zen. Eta orain, itsasoak laguntza erregutzen du. Hura maitatzen duten arima garbiek erregua entzuten dute eta horren kontra borroka egitea zin egin dute. Jainkoari indarra eskatzen diote, itsasertz guztia bere kiratsaz bete duen fuel-olio likatsua ken dezan. Euren eskuak, sareak, itsasontziak –garai baten euren lanbideko lanabesak– gaur egun itsasoa garbitzeko eta salbatzeko tresneriak dira.

AINHOA SAGARRIBAI
‘Mujer de hoy’/03-01-18

HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



Morokil beltza

Heldu da gure kostalde-
ra ere morokil beltza. Bi hilabete pasatu dira, eta hasieran nazioarteko uretara bideratutako arazoa boomerang bat bezala bueltatu zaigu. Kantauriko kosta guztia kristo bat eginda: amorrua, tristura, impotentzia...

Esperientzia guztietatik ateratzen da zerbait ona, eta horrelako gertakizunek oraindik jende solidarioa ere badagoela erakusten dute: boluntarioak. Baina gizarte honetan dena kritikatzeko dugunez, sofán eserita zeudenei ere entzun izan diet, boluntarioak oportunistak batzuk direla, kontzientzia ondo gelditzearren daudela Galizian. Galiziako Zarautzen edo etxeko beste edozein tokitan pasatuta ere, nik, behintzat, oportunista horiei guztiei bihotzez eskertuko nieke hutsaren trukeko lan etengabeko eta astun hori. Eta, bestalde, pentsatu ere ez dut egin nahi morokil beltzarekin

harremanetan ibili diren guztiek hemendik denbora batera ondoriorik izango duten.

Baina, errua eta erantzukizuna norena den epaitegi eta hauteskundeek esan beharko lukete. Orain, irtenbideak bilatzeko garaia da.

Hala ere, guzti honetatik badago oraindik ulertzen ez dudana kontu bat; agian, norbaitek lagun diezadake. Gaur egun, XXI. mendean eta bi hilabete ondoren, dauden aurrerakuntza guztiekin oraindik ez dira gai izan Prestige-ren odol jariora geldituko duenik asmatzeko. Hain zaila ote da 3.000 metroko presioa jasango duen hodi bat ipini eta honek Prestige osoko morokil beltz guztia xurgatzea? Diru arazoa da ala ezin da egin edo ez dakite nola egin? Film bat grabatzeko (*Titanic*) kristoren aurrekontua, eta morokil beltza xurgatuko duen hodi bat sartzeko bi hilabete bagoaz jadanik!
Eta nork daki noiz arte itxaron beharko dugun...

“Hain zaila ote da 3.000 metroko presioa jasango duen hodi bat ipini eta honek Prestige osoko morokil beltz guztia xurgatzea?”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Golo Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Izen mordo

Oraino ez zarete kexatuko gero, txutxumutxu mordo kontatu behar dizkizuet. Irakurri ezazue dena, eta ez zarete damutuko.

Lehenik eta behin, futbol kontuak: **Igor Arenazak** Granadako Motril taldea utzi zuen, eta orain, Barakaldora joan zaigu. Etxe ondoan izango dugu; beraz, aurrerantzean sarri izango dugu bere berri. Nik talde horretan zorte hobea izatea opa diot. Beste herritar bat ere etxe ingurura etorri zaigu Madrildik. **Edu Abasolok** Gran Hermano saioko teknikari lanak bukatu ditu eta orain, *Basetxea* programan arituko da lanean. Emozioa eta abentura, behintzat, biziko ditu saioan. Auskalo nolako pertsonaiak agertzen zaizkigun bigarren *Basetxea* horretan.

Eta Edu eta Igorrekin batera, beste herritar bat ere ezagunagoa izango da hemendik aurrera.

Ainhoa Sagarribaik *Mujer de hoy* aldizkarian ipuin motz bat idatzi zuen aurreko astean. Gaia: Galizian gertatutako hondamendia. Testua gaurkotatzen osokoa zen eta gainera ederto idatzita zegoen. Zorionak, neska, testu horregatik, eta jarraitu horrelako idatzi politik egiten.

Zein gustuko dudan jendea zoriontzea, ea hurrengoan ere norbait zoriontzen dudan.

M. J. Aretxaga

Merkataritza/Aipatu dute saltoki handien aurrean denda txikiek ez dutela etorkizunik

Herriko hiru dendak ateak itxiko dituzte datozen hilabeteotan

AMAGOIA LASAGABASTER

Joan den urte bukaeran, herriko denda batek ateak itxi zituen, behin betiko. Bada, aurten, 2003an, batek bakarrik ez, hiru dendak itxiko dute negozioa. Hiru denda horiek, gainera, Loramendi aldean daude, herriko erdigunetik nahiko urrun dagoen auzunean.

Aretxabalean etxebizitzak egiteko plan partzialak eta proiektuak egin dituzte azkenaldian. Horrez gainera, Espainiako Estatistika Institutuak (INE) argitaratutako datuen arabera, Aretxabaleako biztanleria hazi egin da. Azken sei urteotan, ia 300 lagun gehiago bizi dira herrian. Edozelan ere, merkataritzari dagokionez, datuak ez dira horren baikorrak: 2002an, hainbat denda itxi zituzten Aretxabalean eta orain, 2003ko lehenengo hilabetean, beste hiru dendak ateak itxiko dituztela iragarri dute.

LORAMENDIN

Datozen hilabeteotan itxiko dituzten hiru saltokiak Loramendi aldean daude: bata, Elorza janari denda da, bigarrena, Farmabizi parafarmazia eta azkena, Garbitzen tindategia. Hirurek, hainbat arrazoiengatik, negozioa itxiko dute, behin betiko. Elorza eta Farmabi-



Herriko denda askotan ikusten dira Alokairuan edo Salgai dioten kartelak.

zi denden kasuan, hango ardura-dunek argi esan dute gaur egun denda txikiek ezin dezaketela lehiatu saltoki handiekin. Horrez gainera, aipatu dute denda batek sakrifizio

handia eskatzen duela eta, etekirik ateratzen ez bada, ez duela merezi horrenbesteko lanik egitea. Horiek biek etorkizun iluna ikusten diete denda txikiei.



Gurean ere, danbor hotsa nagusi San Sebastian egunean

Urtero moduan, herriko eskolek San Sebastian eguna ospatu zuten astelehenean, hilaren 20an. Txikiek eta handiek astindu zituzten danborrak, Sarriegiren doinua jarraituta. Eta aurreko aldean danbor jotzaile txiki horien gurasoak egon ziren; denek ere etxeko txikienei argazkiak atera eta bideoan grabatzeko aprobetxatu zuten danborrada./A.L.




Taberna Berri jatetxea

Durana, 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia,1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Hirusta
Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



LURRINDEGIA
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA



luz, kultura zinegotzi Sokorro Unanuek eta Loramendi Euskara Elkarteko zuzendari Josu Sarasuak banatu zituzten sariak.

SARI BANAKETA/ Aurtengo aldian, 314 aretxabaletarrek hartu dute parte lehiaketan

Loramendi Literatura Lehiaketako sari banaketa egin zuten atzo

AMAGOIA LASAGABASTER

Atzo, eguena, eman zituzten XIV. Loramendi Literatura Lehiaketako sariak. Aurten, Almen eta Kurtzebarri eskoletako 314 ikaslek hartu dute parte lehiaketan. Poesiak, ipuinak eta piropoak aurkeztu dituzte, besteak beste. Atzo, horietan onenek saria jaso zuten.

Loramendi Literatura Lehiaketako lan onenak egin dituzten neska-mutilek dagoeneko esku artean daukate saria. Izan ere, atzo, eguena, banatu zituzten sariak. Urtero moduan, guraso eta gaztetxo ugari batu ziren Loramendi elkarteko egoitzan.

BERRITASUNEK, HARRERA ONA

Aurtengo lehiaketan aurkeztutako berritasunek, oro har, arra-

kasta handia izan dute. Hala, posta elektronikoko bidezko hitzordurik inork egin ez badu ere, amodiozko gutunen, komikien eta piropoen lehiaketan jende ugari hartu du parte. Edozelan ere, urtero moduan, gaztetxo gehienek ipuinak idatzi dituzte; izan ere, 314 lanetatik, 171 izan dira ipuinak.

SARITUAK

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ipuinak eta olerkiak aurkeztu zituzten, eta lehenengo saria Aitor Elortzaren *Japoneko gertariak* ipuinak eta Leire Pascualen *Mendiaren bizitza* olerkiak jaso zuten. Hirugarren zikloan, bestalde, ipuinetan sari onena Ainhoa Elorzaren *Izotza lapurtzen zuen morroia* jaso zuen; maila berean, olerkirik onenaren saria Maddi Bengoetxeak idatzitako *Haiak edo gu?* lanak eraman zuen.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokionez, lehenengo zikloan grabaketak, komikiak, piropoak eta amodiozko gutunak aurkeztu zituzten ikasleek. Eta lehenengo saria hauek jaso zuten: grabaketetan, Markel Gisadoren *Aintzinako kontuak* lanak; komikietan, Mirian Isasmendik egingako *Zorigaiztoko altxorra* lanak; piropoetan, Garazi Orobengoaren lana nagusitu zen; eta, azkenik, amodiozko gutun politenaren saria Lide Marren *Bixotza* lanak jaso zuen.

Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan, berriz, lehenengo saria honako hiru lanek eraman zuten: amodiozko gutunetan, Ahi-nize Errastiren *Atxabaltar barkatiak*; piropoetan, Lorea Cubillok egingako piropo sortak; eta, azkenik, komikietan, Maite Otsoaren *Beñat Arazoetan* lanak.

LABUR

'Euskal Herriak Bere Eskola' mintegira joateko deialdia egin du Aretxabaletako talde batek

Bihar, zapatua, *Urrats berriak emateko garaia* lelopean *Euskal Herriak Bere Eskola* herri ekimenak mintegia egingo du Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastolan. Mintegiaren helburua da hezkuntza sistema propio baten aldeko bidean urratsak ematea. Horretarako, dagoeneko gertu dago Aretxabaletako talde bat, eta mintegian parte hartzeko deialdia egin du. Izan ere, taldekideen esanetan, beharrezkoa da herritar guztien laguntza, hezkuntza sistema propioaren aldeko urratsak ematen laguntzeko. Gainera, talde horrek Zarautzera joateko garraibiderik ez dutenendako autoak koordinatuko ditu Loramendi elkartean.

Foru Aldundiak Aretxabaletaren gaineko webgunea zabaldu du Interneten

Gipuzkoako Foru Aldundiak Aretxabaletaren gaineko webgunea egin eta Interneten sartu du. Webguneko aurreneko orrian Aretxabaletako udaletzeko hainbat datu ageri dira, hala nola: alkaterearen izen-abizenak, udaletzeko telefono zenbakia eta helbide elektronikoa. Horrez gainera, hainbat *link* edo lotura ere baditu; horietan herriko planoak, zenbait datu estatistiko eta monumentu historikoen gaineko gidak aurki daitezke, besteak beste.

Dena dela, webgunea amaitu barik dago oraindik. Gaztelaniaz eta euskaraz irakur daiteke eta www.aretxabaleta.net helbidean aurkituko duzue Aretxabaletaren gaineko webgunea.

TXUTXUMUTXUA



'Natatxa' antzerkiak jende ugari batu zuen

Joan den zapatuan, hilaren 18an, Txalo antzerki taldeak umeendako *Natatxa* antzerkia egin zuen kirol etxean. Denera, ia 200 lagun batu ziren antzerkia ikusteko; gehienak, umeak. Luis Pescettik idatzitako antzerkia Eskoriatzan antzeztu zuten lehenago, eta han ere sekulako arrakasta izan zuen. Aretxabaletan, antzerkia amaitu zenean ume eta nagusi ugari autografoak eskatzera joan zitzaien aktoreei. Izan ere, Txalo taldeko kide batzuk ezagun egin dira eta *Goenkale* telesaillean.

URBALTZ
TABERNA

URBALTZ
taberna

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

Dorleta
taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi, 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

IGOR ARENAZA/BARAKALDO FUTBOL TALDEKO JOKALARIA

"Egoera bakoitzean alde positiboa ikusten ahalegintzen naiz beti"

AMAGOIA LASAGABASTER

Urtebetez Granadako Motril futbol taldean ibili eta gero, Igor Arena-za Euskal Herrira itzuli da. Aurrerantzean, Barakaldon jokatu du. Pozik eta itxaropentsu azaldu da Bizkaiko taldean hasi duen ibilbidearekin.

Nolatan amaitu duzu Barakaldon?


Gabonetako oporretan dagoeneko argi neukan ez nintzela Granadara bueltatuko; hortaz, hemen gelditzeko negoziakete-kin hasi nintzen. Real Union eta Barakaldo taldeek egin zidaten eskaintza, eta azkenean, Bizkai aldera joatea erabaki nuen.

Zelan aurkitu duzu talde berria, Barakaldo?

Oso ondo. Euskal taldea da, eta badakit han futbolaren gainean berba egiteaz gain, futbolerako lan egiten dela. Hori egiaztatze-ko, hor daude emaitzak: Barakaldo aurreneko postuetan dago.

Eta zuk fisikoki zelan aurkitu duzu zeure burua?

Egia da Motrildik etorritako- an aste bi inguru geldi egon nintzela, ezer egin barik. Gero, bai-



"Gabonetako oporretan dagoeneko argi neukan ez nintzela Motrilera bueltatuko"

na, nire kontura hasi nintzen gertatzen, eta esan dezaket ondo

nagoela. Aurreneko minutuak ere jokatu ditut dagoeneko Barakaldon, eta hangoak ere uste baino hobeto nagoela konturatu dira.

Azken baten, pozik aldaketarekin?

Bai, ni beti pozik egoten naiz. Egoera bakoitzean alde positiboa ikustea gustatzen zait. Orain, etxe ondoan nago, eta horrek asko laguntzen dit. Gainera, aurrera begira, Barakaldo moduko talde baten ego- teak aukera handiak eskaintzen dizkit.


Zeintzuk dira Barakaldoren helburuak?

Helburua da mailaz igotzea, hau da, bigarren A mailara igotzea. Azken 10 urteetan helburu bere- rekin jokatzeko dabilta Barakal- dokoak. Lehenengo eta behin, aurreneko lau taldeen artean gel- ditu beharko dugu, eta orain, horre- tan gabilta.

Eta zure helburu pertsona- lak zeintzuk dira?

Berberak. Nire helburu nagus- ia da Barakaldon nigan jarri duten konfiantza horri ondo erantzutea. Barakaldokoak denbora luzean ibili dira nire atzetik, eta esker- tze-koa da. Horregatik, lanean jarraitu gura dut, eta gauzak ondo egiten ahaleginduko naiz.

FOTOKIROLA



Izquierdo eta Hurtado txapel- dun!

Joan den domekan, hilaren 19an, bukatu zen Debagoie- neko Frontenis Txapelketa. Txapelketako finala Candido Hurtadok eta Jose Izquier- dok Iñaki Sánchezen eta Kepa Garcíaren aurka jokatu zuten. Hurtadok eta Izquier- dok osatutako bikoteak irabazi zuen (30-20). Bestalde, hirugarren eta laugarren pos- tua erabakitzeko partiduan Patxi Vallejok eta Xabi Albi- suak Mendozari eta López- irabazi zieten (30-26). /A.L.

XAKEA

Arlutz Xake Taldea erraz nagusitu zen San Andresen aurkako derbian

Joan den zapatuan, hilaren 18an, Arlutz Xake Taldeak Arrasateko San Andres Xake Taldeari irabazi zion (3,5-0,5). Franek eta Ando- nik zailtasunen bat edo beste izan zuten euren aurkariei irabazte- ko. Esteban eta Aitor, berriz, erraz nagusitu ziren. Arlutz Xake Tal- dea aurreneko postuan dago Euskal B Ligako sailkapenean. Hurren- go partidak Santurtziren kontra jokatu- ko dituzte.

FUTBOLA

Preferente mailako UDAk 1-0 irabazi zion Real Union taldeari, domekan

Azkenean ere, Real Union taldeari gol bakarra eginez preferente mailako UDAk horrenbeste itxarondako garaipena lortu zuen. Ez zuen partidua erraza izan UDAk, eta denbora luzean talde biak pare- katuta ibili ziren. Hala ere, UDAk aukera gehiago sortu zituen, eta azkenean, Erik García gola egin zuen. Etzi, domeka, Berio- ren aurka jokatu- ko du UDAk, Donostian.

FUTBOLA

Erregionaleko bigarren mailako UDA nagusi izan zen Legazpiko Gazteen Elkartean aurka

Nedzad-ek zuzentzen duen UDA taldeak partidurik galdu barik jarraitzen du. Joan den zapatuan, hilaren 18an, 1-2 irabazi zion Legazpiko Gazteen Elkarteko taldeari. Garaipen horren ondorioz, UDAkoek lehenengo postuetan jarraitzen dute euren taldeko sail- kapenaren barruan. Aurten, erregionaleko bigarren mailako UDAk igoera fasea jokatu eta mailaz igotzea du helburu.

PILOTA

Herriko zortzi pilotarik Udaberriko Pilota Torneoa hartuko dute parte

Bihar, zapatua, herriko zenbait pilotarik Udaberriko Pilota Tor- neoko aurreneko partidua jokatu- ko dituzte. Hain zuzen ere, tor- neoa Aretxabaletako lau bikote- k hartuko dute parte, eta horie- tatik hiruk bihar izango dute partidua. Bestalde, aurten, Lasaga- baster eta Alzola pilotari aretxabaletarrek Oñatiko Aloña Mendi elkarte- a ordezkatuko dute Udaberriko Pilota Torneoa.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Ikasberri
Bigarren mailako erregionala.
Zapatua. 15:30. Ibarra.
UDA/Alemen-Behobia
Bigarren mailako erregionala.
Zapatua. 17:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.(2)-Altzatarra (2)
Seniorrak.
Zapatua. Iturrigorrin.
Aretxab.(1)-Tolosa (1)
Nagusiak.
Zapatua. Iturrigorrin.

EMAITZAK


FUTBOLA

UDA 1 Real Union 0
Preferentea.
UDA 2 Martutene 0
Gazteen Euskal Liga.
Legazpiko Gaz. 1 UDA 2
Bigarren mailako erregionala.
Zumaiako 0 UDA/Almen(b) 1
Bigarren mailako gazteak.
Zestoa 1 UDA 4
Lehenengo mailako kadeteak.
UDA 0 Eibartarrak 2
Bigarren mailako kadeteak.

UDA 1 Arrasate 0
Infantilak.

PILOTA

Ez zuten txapelketako partidu- rik jokatu.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



*Matikua
jatetxea*

Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

**IZOTZ
Taberna**

Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA

ERRETRATUZAHARRA

Hau da hau abade koadrila!

Hogeita zazpi abade batu ziren, 1949ko abuztuaren 17an, Larrino auzoan. Urtean behin inguruko herri eta auzoetako parroko eta abade laguntzaile gehientsuenak elkartzen ziren: urteko diru kontuei gainbegiratu egin, hildakoak zenbatu... Eta, zelan ez, eguna bukatzeko bazkari goxoa egiten zuten. Argazkian agertzen diren hogeita zazpi abadeetatik, bi baino ez dira bizi: Jose Berezibar, Arrasaten, eta Cruz Abarrategi, Eskoriatzako Bolibar auzoan.

Lehenengo ilaran, ezkerretik hasita: Celestino Álvarez, Arrasateko Kontzepzionistak Elkarteko kapilaua; Pedro Pujana, Eskoriatzako parrokoa; Juan Jose Iriondo, Mazmelako parrokoa; Anastasio Otadui, Apotzagako parrokoa; Justino Uribesalgo (Errotabarri), Arrasateko abade laguntzailea; Joaquin Urrutia, Garagartzako parrokoa; Bonifacio Arenaza, Goroetako parrokoa; Jose Berezibar, Uribarriko parrokoa; Jose Luis Arrazola, Oñatiko abade laguntzailea; eta Jose



Ibargoia, Larrinoko parrokoa.

Bigarren ilaran: Leandro Arrazola, Galartzako parrokoa; Facundo Sampe-dro, Eskoriatzako abade laguntzailea; Angel Garmendia, Aretxabaletako parrokoa; Dionisio Isasmendi, Arrasateko organo jotzailea; Cruz Abarrategi, Bolibarko parrokoa; Joaquin Murua, Bergarako Labe Garaietako kapilaua;

Justo Jauregi, Garagartzara etorritako abadea; Fermin Fernández de Arroia-be, Bedoñako parrokoa; Francisco Zaloña, Izurietako parrokoa; eta Simon Ansola, Areantzako parrokoa.

Hirugarren ilaran: Justo Ibargutxi, Aozaratzako parrokoa; Rafael Eriz, Aretxabaletako Agustinen Elkarteko kapilaua; David Esnal, Irungo parro-


koa; Jose Luis Iñarra, Arrasateko parrokoa eta artzapeza; Paco Imaz, Arrasateko abade laguntzailea; Jose Lizarralde, Zarimutzeko parrokoa; eta, azkena, Eusebio Galfarsoro, Antzuolara etorritako abadea.

Argazkia: Jose Olabe.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Lantegiak herri barrutik atera guran

Lantegiak herri erdialdean egotea ez da gero itxurosoa, eta Beroak adina ke zikin botatzen zuena egotea, are gutxiago. Hori dela eta, pozik hartu zuten herritarrek Beroa lekuz aldatzea. Iragarri baino beranduago izan zen hori, baina 2002. urteari bukaera Beroari agur esanaz eman zioten aretxabaletarrek. Lantegiaren ordez etxeak egongo dira laster.



≈ 1995

XX. mende hasieran egindako lantegiak ia 100 urte eman ditu herri erdialdean. Orain, Bainuetzeko industrialdean jarraituko du.



2003

Lantegia egondako lekuan etxebizitzak egiteko lekua prestatzen dabilta hondetzeko makinak. Ehun etxe baino gehiago egiteko asmoa dute.

OPEL

OPEL CORSA
Zure bizimoduarekin sintonian

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA
943 71 20 03 Faxes: 943 77 16 20

Orain %16 aurrez dezakezu
Agila, Corsa eta Astra, Dieslean eta Gasolinan



Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 20a / 110. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Xanti Iparragirreri omenaldia egin zioten herriko eta ibarreko lagunek

AINTZANE GARDOKI

Joan den zapatuan, *Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea* lelopean manifestazioa egin zuten Eskoriatzan. 500 lagunek, herriko kaleetan zehar ibili ondoren, Xanti Iparragirreri ongietorria egin zioten plazan. Xantik gustura jaso zuen herritarren berotasuna.

Joan den zapatuan Askatasunak antolatutako manifestazioan "lasaitasuna eta elkartu zen jende mordoia izan ziren aipagarrienak", esan digu Ezker Abertzaleko kide Lore Diaz de Gereñuk. *Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea* zioen pankarta eroan zuten manifestazioan. "Jende artean zen Xanti Iparragirre bera. Herriko kaleetan zehar ibili ginen". Ibilaldia amaituta, plazara jo zuten. Eta plazan, 22 urte herritik kanpo egon den Xanti Iparragirreri ongietorria egin zioten: "Xantik bizitza luzean eginda-koak gogoratu genituen: herriko sokatira taldearen sustatzaile izan zela; zinema zaharrean antolatzen ziren ekitaldi askoren eta askoren bultzatzaile izan zela; Almen Ikastolako Bertso Eskolaren



AITOR URIZAR

Euskal Herrian libre bizi izateko aukerarik ez dutenak gogoratu zituen bere hitzekin Xanti Iparragirrek.

sortzaileetarikoa izan zela... Herriko dantzariak eta txistulariek aureskua eskaini zioten, eta Edorta Zubizarreta alkateak herriaren izenean txapela eskai-

ni zion Xantiri". Etixerat, Askatasuna eta Bai Euskal Herriari taldeek ere egin zioten hainbat eskaintza. Era berean, Jon eta Aitor Sarasuak eta Manex Agirrek

ere ongietorria egin zioten, bertsoan; eta, bukatzeko, Xantik eskerrak eman, eta oraindik ere egoera latzean lagun asko daudela gogoratu zien herritarrei.

Lasaitasuna eta elkartu zen jende mordoia izan ziren manifestazioaren aipagarrienak

Herriko dantzariak aureskua eskaini zioten. Alkateak, herritarren izenean, txapela eskaini zion

Oraindik ere egoera latzean lagun asko daudela gogoratu zien Xantik han batutakoei



Etxebizitzak egiteko lanak hasi dituzte

Jose Arana eskola zaharrak zeuden leku berean hasi dituzte etxebizitzak egiteko lanak. Udaloste Kooperatibak 32 etxebizitza egingo ditu eta Aizorrotz promotoreak, berriz, beste 11. Aizorrotz promotorearen izenean Emilio Arrizabalagak esan digu lanak hasita daudela, eta 18 hilabeteren buruan etxebizitzak entregatzeko moduan izango direla. Udaloste Kooperatibako etxebizitzak, berriz, Bikani eraikuntzak egingo ditu. Etxe guztiak salduta daude, eta urte bi barru amaituko ei dituzte lanak.

LABUR

Olazar elkarteak batzordekideak aldatu ditu

Zortzi lagunek osatzen dute Olazar elkartearen batzordea. Batzordekideek lau urte egiten dituzte batzordean, baina bi urtean behin batzordea berritu egiten dute; hau da, lau batzordekide batzordea utzi eta beste lau kide sartzen dira. Hala, Pablo Oñatek, Carlos Navarrok, Mari Carmen Erañak eta Eloy Rivasek batzordea utzi dute. Eta hauexek dira batzordekide berriak: Rufina Beitia, Lola Galiano, Vitoriano Del Rio eta Pedro Mari Armendariz.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

OHARRAK

'BELLA MAKIA BELLA' ANTZERKIA ETA XABIER MONTOIAREN KONTZERTUA

Gazte Asanbladak antolatuta, gaur, egubakoitza, *Bella Makia Bella* antzezlan eskainiko dute, gaztetxean, 19:00etan. Eta bihar, zapatua, Xabier Montoiak diskoa aurkeztuko du, gaztetxean, 22:00etan.

'EL HOMBRE QUE CONFUNDIÓ A SU MUJER CON UN SOMBRERO' ANTZERKIA

Gaur, egubakoitza, Ramon Bareak zuzendutako ikuskizuna, HUHEZIKO Fakultateko areto nagusian, 22:30ean. Sari ugari irabazi ditu antzezlan horrek.

AXTOKIRENAGENDA

DEBAGUNEK BEKADUNA IZANGO DU AURRERANTZEAN

Ibarreko euskara elkarteak, hau da, Debagunek, HUHEZI fakultateko ikasle bat izango du aurrerantzean, elkartean hainbat lan egiteko.

HEZKUNTZA

Bateratze juridikoaren gainean Arizmendik informazioa zabaldu du

AINTZANE GARDOKI

Irailaren 1ean, Almenek eta Arrasateko San Viatorrek, San Frantziskok eta Umezaintzak ikastola bakarra osatuko dute: Arizmendi Ikastola. Urtebete baino gehiago daramate bakarra balira bezala lan egiten, baina juridikoki pausoa emateko dagoenez, gurasoei prozesua zelakoa izango den azaldu diete Arizmendiko arduradunek. Hala, Almen Kooperatibako presidente Iñaki Bordesek lau ikastolak bateratzearen aldeko arrazoiak azaldu zituen Almen gunean. Haren ondoren, Txaro Iraetak bateratze juridikoa posible egiteko eman beharreko pausoen gainean egin zuen berba. Prozesua aurrera eramateko, ezer baino lehen, otsailaren 19an, kooperatiba bakoitzeko errektore kontseiluek egungo kooperatibak desegin eta Arizmendi onartu beharko dute kooperatiba bakar bezala.



Hiru mila ikaslerekin Euskal Herriko ikastola handiena izango da Arizmendi.

TXUTXUMUTXUA



San Sebastiani gorazarre egin zioten 130 umek

Donostiara joan beharrik ez da egon oraingo astean danbor hotsak entzuteko; izan ere, gogotik astindu dituzte herriko umek danborrak. Astelehenean, Luis Ezeizako 130 ume elkartu ziren danborrada jotzeko. Iaz Artistika orduetan egin zituzten jantzi dotoreekin batailoia osatzen zuten hiru konpainiek San Sebastianen ereserkia eta diana jo zituzten, besteak beste. Hamahiru urte badira Luis Ezeiza Herri Eskolan danborrada egiten hasi zirela. Danborrariak gurasoengandik txalo zaparrada ederrak jaso zituzten. /A.G.

LABUR

Herriko gazteek euren webgunea diseinatu dute

Eskoriatzako Gazte Asanbladaren gaineko edozein informazio eskuratu gura duenak www.eskoitzako-gaztetxia.tk helbide elektronikoa du aukera. Astebete inguru da herriko gazteen webgunea sarean dela. GAKo kide Joseba Gabilondok diseinatu du webgunea. Hala, www.eskoitzako-gaztetxia.tk helbidean hainbat aukera daude Gazte Asanbladaren gainekoak jakiteko. Zazpi atal ditu, baina, oraingoz, agenda eta txata daude erabiltzeko moduan.

Otsailean ikastaro gehiago egiteko deialdia Amuskak

Eskulan, olio-pintura, ehoziri eta sukaldaritza ikastaroak antolatu ditu Amuska taldeak. Otsailaren lehenengo astean hasi gura dute ikastaroekin. Urtarrila bitartean, 80 lagunek egin dituzte eskulan, ehoziri eta olio ikastaroak: "Ikastaroekin jarraitu gura dugu eta, era berean, jende gehiagori aukera eman. Sukaldaritza ikastaroa ere egin gura dugu", esan digu Dorleta Lezetak. Izena emateko, urtarrilaren 28an eta 29an, kultura etxean, 18:00etatik 19:00etara.

Kiroldegiko prezioek %3 egin dute gora

Hilaren 21ean, kiroldegia 1.102 bazkide zituen. Urtarrila mugimendu handiko hilabetea izaten da kiroldegietan; izan ere, batzuk bazkide egiten dira eta beste batzuek bazkide izateari uzten diote. 2003an, kiroldegiko prezioek %3 egin dute gora. Berritasunen artean, herritarrei ibarreko edozein kiroldegitako zerbitzuak erabiltzeko aukera ematen dien txartel bateratua jarri dute abian. Informazio zabalagoa, kiroldegian bertan.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehaztetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

COMPOSTELA Taberna

Olagarro espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 48 70

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure Zerbitzura



DORLETA

Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20

Garro jauregian garbiketa lanak egin dituzten arren, ludoteka itxita dago

AINTZANE GARDOKI

Garro jauregian urtarrilaren 11n suak eragindako kalteei aurre egin guran, lanean hasi dira dagoeneko: Toki Eder elkartearen hondakinak kentzeko lanak joan den astean egin zituzten. Eta ludotekako eta liburutegiko garbiketa lanak egin badituzte ere, itxita daude oraindik.

Joan den astelehenean, hilaren 13an, aseguru etxeko peritua 48 ordu lehenago suak eragindakoak aztertzen ibili zen. Hurrengo, Udalak egin beharreko lanen aurrekontua aurkeztu beharko dio aseguru etxeari. Adostasuna lortuaz bat, Garro jauregian lanak hasteko moduan izango dira.

Leintz Gatzagako Udaleko apa-jadore Marian Aristik jauregian izandako kalteen aurrebalazioa egingo du. Udaleko apa-jadoreak suak lehen eta bigarren solairuen artean eragindako kalteak ikusi zituen joan den astean, eta, ahal bezain laster, egin beharreko lanen aurrekontua aurkeztuko du Leintz Gatzagako Udalean.

Ludotekan eta liburutegian, berriz, Garbitu enpresak egin beharreko garbiketa lanak egin zituen.



Udaleko langileek Toki Eder elkarteko hondakinak kendu zituzten.

ENEKA ZANCADA

Dena dela, Leintz Gatzagako udal-letxean esan digutenez, umeendako lokala lehenbailehen zabaldu

gura dute, baina jauregian argia noiz konponduko zain daude. Horrenbestez, argiketariak argin-

darra jartzen dutenean, ludoteka eta liburutegi zerbitzuak zabalduko dituzte.

Adostasuna lortuaz bat, Garro jauregian lanak hasteko moduan izango dira

Ludotekan Garbitu enpresak egin beharreko garbiketa lanak egin zituen joan den astean

Argindarra jartzen dutenean, ludoteka eta liburutegi zerbitzuak zabalduko dituzte

TXUTXUMUTXUA



Umeek Igeriketa ikastaroa egin dute aurreko bi asteotan

Egun hauetan, eskolako umeek motxilan bainujantzia, uretarako txanoa eta txankletak izan dituzte lagun; izan ere, joan den astean eta oraingotan, Eskoriatzako lagunekin batera Igeriketa ikastaroa egin dute. Ume batzuk beste batzuk baino hobeto moldatzen dira uretan, baina, orokorrean, denak oso gustura ibili direla esan digu Eskoriatzako begiraleak. /A.G.

LABUR

Erretiratuek ez ei dute Santa Ageda egunean kantatuko

Gatzagako erretiratuen elkarteko kide batek adierazi zigunez, aurten, erretiratu koadrila batek asmoa zeukan Santa Ageda egunean baserriz baserri eta herrian bertan kantuan eta eskean ibiltzeko. Han eta hemen, gainera, Santa Ageda kantua letrak eta askotariko bertsoak ere topatu dituzte. Entseguren bat edo beste ere, irrintzi eta guzti, egin ei dute. Orain, berriz, herriko elkarteak ere ez daukatenez, animuak hoztu egin direla jakinarazi digute.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gainera informazioa emateko, deitu gurerara!

943 79 86 21

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Zure etxearen osasun onerako



ESKORIATZA

RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA
"R.E.L.E."

Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio
- eta bideo salmenta
- eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETAK

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

**Gasa • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza**

PINTURAS



ESKORIATZA

- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ek. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza •
- Gasa •
- Berogailuak •
- Peetrolio-produktuak •
- limatizazioa •

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETAK
686 113 581 / 943 79 65 46

TXOMIN
igeltserotza
ARETXABALETAK


ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94



Instalazioen mantenu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

Dintura eta dekorazioa



San Migel 13, behea C
ARETXABALETAK
609 143 119



MUSAKOLA
Pinturak

Durana 27, 3. solairua
ARETXABALETAK
Tel. 943 77 08 16 / 635 72 31 50

ARETXABALETAK
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETAK

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE-15
ARETXABALETAK

943 793 187



ASTEBETE...

Eta zuk, zer duzu esateko?

Kexak, proposamenak, albistek... utzi zure mezua gure erantzungailuan: 943 71 23 93



**Ikusiko
duzu!**

Egubakoitzero,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Goiatz Arana